

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Azaroak 26  
Asteazkena  
Alea: 948  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Ezkerrean, inaugurazioko egunean estankeko landareei begira. Eskubiko argazkian Nere Bordako parte irekia.



## Nere Borda inauguratu dute eta egunero egongo da jendearentzat zabalik, goizetik gauera

■ Parkeak bi zati ditu: bata erabat irekia, eta bestea goizetik gauera irekiko dute egunero ■ 5.685 m<sup>2</sup> ditu parkeak eta Gipuzkoako intsinis pinurik haundiaren dago, zedro, palmera, magnolio eta abarren artean.

NERE Borda parkea astelehenean inauguratu zuten eta hemendik aurrera irekita egongo da jendearentzat goizetik gauera. Guztira 5.685 metro karratu ditu eta 63 espezie desberdinak lanbareak ikusi daitezke. Joxan Rekondo Alkatea eta Andoni Amonarraiz zinegotzia izan ziren inaugurazioan, Udaleko lorazaina eta inguratutako herritarrekin batean.

### Parkeak bi zati

Nere Borda parkeak bi zati nagusi ditu. Bata, Latsunbeko rotonda parean dago eta erabat irekia da. Aspalditik dago bukatua eta zabalik. Zati hori ingles estiloko lorategia da eta zedro urdinak eta Himalaiakoak, palmerak, magnolioak, ezpelak eta abar ditu. Beste zatia da atzo inauguratu zutena. Sarrera du Traspakar ondotik eta goizean ireki eta gauean itxi egingo dute.

Bigarren zati hau 3 eremutan dago banatua. Lehenengo sarrera ondokoa da eta arbolaz dago osatua: izei gorriak, zedroak, erramuak eta abar daude eta baita intsinis pinu galanta ere. Diputazioko teknikarien arabera Gipuzkoako intsinis pinu haundiaren da Nere Borda da goena: luzeran 25 metro ditu eta 4,1 metroko gerri buelta. Aurrerago lorategi klasikoa dago eta arbustuz egindako hesi borobilak eta palmondoak ditu. Beste partea experimentalda da eta erakusketa egiteko, ikastetxeetako haurrek loreak aldatzeko eta abar erabiliko da.

Informazio guztia sarrean dagoen informazio taula batean aurkituko du Nere Bordara inguratzen denak eta arbola eta landare bakoitzak ere bere plaka daramaki, izeana eta beste zenbait daturekin. □



Nere Bordako intsinis pinuaren gerri buelta izugarria da.

### Hiru arbola haundienak Hernanin

NERE Bordakoa da Gipuzkoako intsinis pinu haundiaren, Diputazioko teknikariek aztertutakoaren arabera. Gipuzkoako haritzak eta Gingo Biloba haundiaren ere Hernanin daude. Haritz Etxeberri dago, herri lurretan, Etxeberriko etxe haundien atzekaldeko mendixkan. Gingo Biloba haundia, berriz, Goiz Eguzkiko parkean dago eta espezie horretako Gipuzkoako haundiaren ezezik Euskal Herriko haundia ere izango da seguruenera.

## 'Solo mía' pelikula gaur Biterin

GENERO indarkeriaren aurkako egunaren bueltan ekitaldiak antolatu ditu Udaleko Berdintasun Sailak eta gaur *'Solo mía'* pelikula botako dute Biterin, arratsaldeko 19:30etan. □

## Medicus Mundiren erakusketa, atzeratu

BITERIN astelehenean zuten irekitzekoa Medicus Mundiren erakusketa. Atzeratu egin da, ordea, eta urtarrila edo otsaila inguruan jarriko dute. Hurrengo erakusketa datorren astean dute jartzeko Biterin: *Hirugarren adina Hirugarren mundurako*. □

## Bildu Hernanik bilera kirol taldeekin

BILDU Hernanik bilera deitu ditu aste guztian Hernaniko talde desberdinak, Udal politikaren egoera aztertu eta aurrekontuak lantzeko. Gaur Kirol taldeekin elkartuko da, 20:00etan Biterin. Inongo taldetan ez dauden herritarei ere bileretara azaltzeko dei egin die Bildu Hernanik. □

## Erregeetako kabalgata antolatzeko bilera

ERREGEETAKO kabalgata antolatzeko bilera deitu du Kabalgata komisioak. Datorren ostegunean, arratsaldeko 20:00etan Biterin da bilera eta komisioak dei egin die antolatzeko edo parte hartzeko pronto dauden guztiei. □

## Herri Batzarra deitu du Ezker Abertzaleak

BIHAR, osteguna, Herri Batzarra deitu du Ezker Abertzaleak, arratsaldeko 20:00etan Biterin. *Erker Abertzale Feministarantz... beste pausu bat* gaiaren bueltan deitu dute biharko bilera. □

**TXIMELETA OPARIAK**  
Txirrita 10  
943 55 23 95

Zure erosketagatik Gabon Loteria 36.599 zenbakiko partizipazioa opari

**AMEGAR**

Etxe tresnak Altzariak  
Sukalde altzariak

Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

**ETXE OMENAK. S.A.**

GARAJE ITXIAK  
"OBLATOS" ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:  
943 33.22.37

**g jatetxe - taberna gadaffi**

ORDUTEGI BERRIA  
Arratsaldeko 18:00etatik - 24:00ak arte

Astelehenetik - Larunbatera Igandean Itxita

Karta berria, pintxo beroak, konbinatuak, razioak,...

Izpizua 15 - hernani - 943 55 00 02

## Udalak Deklarazio Instituzionala egin du genero indarkeriaren kontra, PSE-EEren iniziatiibaz

■ Genero indarkeria gaitzesteaz gain, etxe barruko indarkeria jasaten dutenak benetan babesteko neurriak eskatzen ditu kontsentuz onartutako mozioak.

HERNANIKO Udalak Deklarazio Instuzionala egin zuen atzo, Genero Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. Eguerdian Pleno Berezia egin zen eta aho batez etxebarruko indarkeriaren kontrako mozioa onartu zuten. Mozioa Alderdi Sozialistak aurkeztu eta gero Bozeramaile Mahai-an adostu zuten. Mozioak sa-

rreran dio Estatuan 80 emakumetik gora hil dituztela motibo horregatik. Testuaren esanetan, geroz eta argiago dago indarkeria horren atzean da goela emakumeak bizi duen desberdintasun soziala.

Genero indarkeria horren kontra borrokatzeko Hernaniko Udalak aurrera pauso positiboa konsideratzen du Di-

putatueng Kongresuak onartutako legea Etxebarruko Indarkeriaren Bikitimak Babesteko. Mozioak aldarrikatzen du, batetik, gainerako administrazio publikoekiko elkarlana biktimei benetako babes emateko, eta bestetik Justiziari eta Gorputz polizialei errekurso gehiago ematea atentzio eta babes hobea emateko. □



Euskaltzaindiko, Diputazioko, Deustuko Unibertsitateko eta Hernaniko Udaleko arduradunak.

## Kardaberazi buruzko jardunaldiak bihar Donostian, 3garren mendeurreneneko ekitaldien barruan

■ Deustuko Unibertsitateko Donostiako kanpusean dira jardunaldiak goiz eta arratsalde ■ Jardunaldietara joan nahi duenak 943 326296 telefonora deitu.

AGUSTIN Kardaberaz idazle hernaniarra jaio zela 300 urte beteko dira aurten eta Euskaltzaindiak Kardaberaz Urtea izendatu du aurtengoa. Horren bueltan ekitaldiak ari dira egiten Euskaltzaindia, Deustuko Unibertsitatea, Diputazioa eta Hernaniko Udala. Bihar Kardaberazaren obrari eta bizitzari buruzko 4 hitzaldi eta 6 komunikazio emango dituzte Deustuko Unibertsitateko Donostiako Kanpusean, goizeko 09:30etatik arratsaldeko 19:00ak ingurura. Atzo aurkeztu zituzten ekitaldiak pren-

tsaurrean Euskaltzaindiko, Diputazioko, Deustuko Unibertsitateko eta Hernaniko Udaleko arduradunek.

**'Euskeraren berri onak'** Kardaberazaren lana eta Kardaberazaren bizitza dituzte azaltzeoak bihar. Erlilio liburuak eta erlijioz kanpokoak aztertuko dituzte eta bereziki *Euskeraren berri onak* lana.

Aurrerantzean, Euskaltzaindiak Euskeraren Berri Onak liburuaren edizio kritikoa aterako du, prentsaurrean adierazi dutenez. □

### EGITARAU

- 09:30 Hasiera Ekitaldia
- 09:45 Kardaberazen Bizitza. Patxi Altuna
- 10:30 Kardaberaz Obra. Rosa Miren Pagola.
- 11:45 Kardaberaz hizkuntza ideiak. Jose Ramon Zubiaur.
- 12:05 Lingüistica eta preceptiba *Euskararen Berri onac-en* oinarri. Itziar Tunez.
- 12:25 Kardabezen Bzikai alderdia. Adolfo Arejita.
- 16:00 Kardaberaz mezuen eraginkortasuna, hizkuntzaren erabilpenaren arabera. Ixiar Badiola eta Larraitz Zubeldia.
- 16:20 Kardaberaz eta aditz atzeratzea euskeraz. Kardaberaz eskola. Bittor Hidalgo.
- 17:05 Euskeraren berri onak. Kardaberaz tokia hizkuntz elegantziaren auzian. Josu Bujuesca.
- 17:40 Kardaberaz erretorikari buruzko gogotza. Joana Garmendia.
- 18:00 Kardaberaz erretorikatik egungo testugintzara: bideak eta erakutsiak. Andres Urrutia.



Jende asko Santa Zezilia egunaren bueltako kontzertuetan. Lehengo astean Santa Zezilia bueltako kontzertua izan dira Hernanin eta arrakasta haundia izan dute. Irudian Musikari bandak igandean emandako kontzertua, Manuel Sagarna zuzendari dela. □

## HITZ BITAN



Kontenedore berriak Hirubidieta jatetxe ondoan daude.

### ✓ ZABOR BILKETA

**Kontenedoreak Epelen.** Epelen kontenedore berriak jarri dituzte, birziklatzeko gaiak hartzeko. Papera eta kartoia, ontziak eta kristala biltzeko kontenedoreak dira.

### ✓ ANDRAGOTO

**Hitzaldiak esklusio sozialari buruz.** Andragoto Ateneoak bazterketa sozialari buruzko jardunaldiak antolatu ditu. Gaur Donostiako Okupa Asanbladako kide batek hitz egingo du, 19:30etan, eta bihar Berriotxoak taldeko ordezkariek izango dira laguntza sozialen gora-beheran hitz egiteko, ordu berean. Larunbatean, 18:00etan, esklusio sozialari lotutako pehiku bat izango da Andragoton.

### ✓ AGUSTINATAKO OBRAK

**Zinkoeneako etxea gaur botako dute.** Agustinatako obren barruan, gaur botako dute konbentua eta Zinkoenea artean dagoen etxea. Lanak goizean hasiko dira eta ez da Zinkoenean bide mozketarik izango, babeserako baila batzuk jariko badira ere. Etxe hori botatzean hasiko dira konbentua berritzeko obrak.

### ✓ KIXKAL TABERNA

**Turlanch taldearen kontzertua bihar.** Kixkal tabernak doinu irlandarrak izango dira bihar, 22:00etatik aurrera. Turlanch taldeak emango du kontzertua.

### ✓ AEK

**Kobazuloetara bisita.** Hernani eta Astigarragako AEKko ikaleek egun pasa egin zuten joan den igandean Zugarramurdi eta Urdazubi aldean. Zugarramurdiko kobazuloetan Felix Lopez espeleologoak kobazuloen inguruko azalpenak eman zituen eta Mikel Arrieta historialariak akelarrearen eta sorginen jatorriari buruzkoak azaldu zituen. Handik Urdazubiko kobazuloetara joan ziren denak eta Urdazubin bertan baxkaldu eta kantu saio ederra egin ondoren bueltatu ziren Hernanira, egun pasa ederra eginda. □



AEKko ikasle eta irakasleak joan den igandeko irteeran.

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### FARMAZIAK

- Egunez: Bulnes Florida auzoa
- 943 557738
- Gaez: Atxa-Orbea Lasarte. Hipodromo 6
- 943 363549

## IRAGARKI MERKEAK

Furgoneta salgai. Renault Traffic-a. Interesatuek: 943 550317

Iñigo Royo Masajista. Ajuste neurologiko eta bertebrales, naturoterapia, masajea, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33

Kale animaziorako jendea behar da, gabonetako kanpainarako. Mimoa, jokoak, musika, antzerkia eta abar. Deitu: 943 55 55 19